



EHU

Euskal Herriko Unibertsitatea
Universidad del País Vasco

IKERTZAILE DOKTOREAK EHUn KONTRATATZEKO DEIALDIA (2026)



ATARIKOA

EHUK, Euskal Autonomia Erkidegoko ikergune nagusi den aldetik, kalitateko ikerketa jarduerak egiteko erantzukizuna dauka. Testuinguru honetan, unibertsitateko ikertaldeek ezin diete beti aurre egin ikerketa estrategikoaren erronkei, dauzkaten baliabideak batzuetan ez baitira behar adinakoak. Helburu hori betetzeko, honako deialdi hau bitarte delarik, doktoreen espezializazioa, hobekuntza eta laneratzea sustatu nahi dira, unibertsitateko ikertaldeetarako aldi baterako kontratazio neurriak sustatuta.

Ikuspegi hau aintzat harturik eta Unibertsitate Sistemaren Planean aurreikusitako ekintzei jarraituz, definitu da deialdi hau, ikertzaile doktoreak espezializatzeko eta hobetzeko hiru urteko programa bat eskaintzen duena. Deialdi honen bidez, jakintza arlo guztietako doktoreen ikertzeko gaitasuna hobetu nahi da, hauen guztien ikerketa jardueren kopuruak eta kalitateak gora egin dezaten. EHUK bultzatutako nazioartekotze planaren esparruan eta Unibertsitate Sistemaren Planaren Unibertsitatea + Euskadi Basque Country ardatzean ere jasota, deialdi honek baldintzatzen ezartzen du kontratuaren hasierako aldian gutxienez urtebeteko egonaldia egin beharko dela atzerriko ikerguneren batean.

Deialdi honetan laguntza ildo espezifiko bat txertatzen da ikerketa jarduera EHUri begirako interes estrategikoa duten arloetan egiten duten ikertaldeetan ikerketa sustatzeko, horiek ere Unibertsitate Sistemaren Planaren lehentasunekin lerrotatuta.

Horretarako, 3.400.000 euro bideratuko dira, guztira, Bikaintasun Zientziaren ardatzean 2027-2030 aldirako Eusko Jaurlaritzarekin laster sinatuko den programa kontratuaren barruan esleitutako finantzaketan oinarrituta ezarritako aurrekontu kredituaren arabera, honako ekintza hauen bidez: "Doktoratu aurreko eta doktoratu ondoko ikertzaileak prestatzeko programa kontratuak sustatzea"; "Dauden ikertaldeei eta hasiberriei laguntzea, ikerketaren erreferentzia unitate gisa, nazioartean duten lehiakortasuna bultzatuz"; eta "Ikertzaileen mugikortasun eta egonaldi programak nazioarteko edo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko (aurrerantzean, ZTBES) agenteetan". Adierazitako zenbatekoa handitu edo txikitu ahal izango da erabilgarri dagoen behin betiko aurrekontuaren arabera.

Hartara, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean IGBB) txostena egin eta Gobernu Kontseiluan aurkeztu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetza (aurrerantzean IAE) honek deialdi hau onartzea erabaki du, jarraian zehaztuko diren baldintzetan.

1. OINARRIA. DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen helburua da ikertzaile doktoreen espezializazioa, hobekuntza eta laneratzea sustatzea, aldi baterako kontratatzeke neurriak bitarte izanik, unibertsitateko ikertaldeei atxikiz eta jakintza zientifikoaren edozein arlotan dela.

Egin beharreko lana, nagusiki, ikerketa lana izango da, xede duena ikertzaileek hobekuntza eta espezializazio maila handia lortzea esperientzia profesionala finkatze aldera.

Deialdi honen ondorioetarako, Unibertsitateko Ikertaldetzat hartuko da EHUKo Ikertaldeetarako Laguntzen deialdian (2026-2029) edo Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeen jarduerak bultzatzeko dirulaguntzen deialdian (2026-2029) eskaera aurkeztu duen taldea, betiere aipatutako deialdietakoren batean aitortza eta finantzaketa lortu baditu laguntza hauek emateko behin-behineko erabakia argitaratzen den unean.

2. OINARRIA. KONTRATUEN EZAUGARRIAK

2.1 Gehien dela, **20 kontratutarako** deia egiten da, ikerkuntzaren arlo guztietara irekita, ikerketaren 5 arloetako bakoitzerako (Zientziak, Ingeniaritza eta Arkitektura, Osasun Zientziak, Gizarte eta Lege Zientziak, Arteak eta Giza Zientziak) 2 kontratu, gutxienez, gordeta.

Bigarren kontratuaren erreserba egiteko, dagokion arloan eskaeren % 10 egon beharko du gutxienez, eta 65 puntutik gora izan beharko ditu 11. oinarriko ebaluazio irizpideekin bat etorrira.

2.2 Era berean, bi kontratutarako deialdia egiten da, berariaz, azken 5 urteetan EHUKen, Eusko Jaurlaritzaren, Ikerbasqueren, EAEko hiru aldundien, Estatuko Ikerketa Agentziaren edo Europar Batasunaren deialdietatik doktoratu ondoko laguntza bakar bat baino lortu ez duten ikertaldeek egindako eskaeretarako (aipatutako aldian erabaki diren kontratuak hartuko dira kontuan). Ikerketaren Gestio Zuzendaritzak (IGZ) bere kabuz aztertuko du baldintza hori betetzen ote den, 2026-2029 aldirako aurkeztutako taldea (EHU edo Eusko

Jaurilaritza) izanik erreferentzia, bai eta jatorrizko aurreko taldea(k) ere.

Ondorio horietarako, talde aktibotzat hartuko da eskaera egiteko unean indarrean dagoena, bai eta taldekideen jatorrizko taldeak ere (adierazitakoaz bestelakoak badira) aipatutako aldian.

Kontratu espezifiko horiek ebaluatzeko irizpideak kupo orokorrekoen berdinak izango dira, eta hautatutako pertsonen 65 puntu baino gehiago izan beharko dituzte. Kontratu espezifiko biak ez dira inola ere emango jakintza arlo berean, ez eta ikertalde berean ere.

23 Kontratuetakoa bat gordeko da % 33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela egiaztatzen duten pertsonentzat, baldin eta 1. oinarrian ezarritako lana egiteko gaitasuna egiaztatzen badute, zuzendari zientifikoak egindako txostena bitarte. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kontratua hutsik geratzen bada, kupo orokorrari gehituko zaio.

24 Bi kontratu espezifikoak aintzat hartuko dira 2.1 oinarrian aipatutako ikerketa arlo bakoitzeko bigarren kontratua erreserbatzeko irizpideari dagokionean, bai eta desgaitasunik egiaztatzen duten pertsonentzako erreserbarako ere.

25 Deialdi honen bidez lortutako lan kontratua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen (aurrerantzean, ZTBL) 22. artikulua arautuko du, lege horrek 2022ko irailaren 6an izandako aldaketa barne delarik; eta arduraldi osoa izango du.

26 Kontratututako pertsona EHUren sail, institutu edo ikergune bati atxikiko zaio.

27 Sinatu beharreko kontratua 36 hilabetekoa izango da, kontratua formalizatuko deneko datatik hasita.

Kontratuaren 36 hilabeteen aldi baterako antolamendua bi fasetan egituratzen da: lehenengoak gutxienez 12 hilabeteko eta gehienez 24 hilabeteko iraupena izango du, eta ikertzailea atzerriko ikergune batera joango da, ikerketa proiektu bat egiteko; bigarren faseak, berriz, gutxienez 12 hilabeteko eta gehienez 24 hilabeteko iraupena izango du eta, fase horretan, ikertzaileak lan egingo du bere eskaera atxiki zaion ikertaldean.

Onuraduna, kontratua sinatu eta berehala, EHUko dagokion sailean, institutuan edo ikergunean hasiko da lanean, 13.4 oinarrian ezartzen den moduan, eta bertan arituko da jardunean atzerriko ikergunean hasi arte. Kontratua sinatu (ez 2027/02/01 baino lehen, inola ere) eta gehienez ere hilabeteko epean hasiko da atzerriko ikergunean. Ezinbesteko arrazoiengatik atzeratu ahal izango da laneratzea (bisa lortzeko ezintasuna, aldi baterako ezintasun egoeran egotea, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa edo harrera, edoskitzaroko arriskua, aitatasuna edo antzeko inguruabarrak), gehienez 6 hilabetez eta IEaren baimena aurretik dela. Nolanahi ere, kontratua sinatu eta helburuko gunean hasi arte igarotako denbora murriztu egingo da bigarren faseko gehieneko 24 hilabeteetatik.

28 Kontratuaren lehenengo urtean ikerketa lanak egitera ikertzaile doktoreak aldi baterako joaten diren atzerriko guneak unibertsitate, ikerketa gune edo proiektuaren arloan prestigioa duen zentroak izango dira, publikoak edo irabazi asmorik gabeko pribatuak, eta doktorego ikasketak egin zituztenekoaz bestelakoak izango dira.

Atzerriko eskatzaileen kasuan, helburuko gunea ezin izango da egon eskatzailearen jatorrizko herrialdean. Atzerriko guneko egonaldia egin ahal izateko, nolanahi ere, helburuko gunea non egon eta bertan izan beharko du goitza iraunkorra onuradunak.

29 Aldi baterako ezintasunak, haurdunaldiko arrisku egoerak, amatasunak, umeen adopzio edo harrerak, edoskitzaroko arrisku egoerak eta aitatasunak gelditu egingo dute epearen zenbaketa kontratuaren iraupenari dagokionez.

2.10 Ikerketaren arloko errektoreordeak kontratua eteteko baimena eman ahal izango dio interesdunari sei hilabeteren gehieneko eperako, interesdunak horretarako egindako eskaera arrazoitua aintzat hartuta. Honelako kasuetan, etenaldi hori ez da berreskuratu behar, eta kontratua erabakian ezarritako mugaeguna heltzean amaituko da. Kontratuaren etenaldian baja emango zaio Gizarte Segurantzari. Etenaldiaren ondoren laguntza berriro lanean hasi ezean, uko egin zaiola ulertuko da eta automatikoki emango zaio baja. Etenaldi hori ezin izango da, inola ere, 12 hilabeteko atzerriko egonaldi jarraituan izan.

2.11 Deialdi honen baitan kontratatutako ikertzaileek jasoko duten urteko ordainsari gordina EHUk

kategoria honetan lanaldi osoko arduraldian ari den langileari ezarriko diona izango da.

2.12 Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak ez dakar kontratu harreman egonkorrik adjudikaziodunaren eta EHUren artean; harreman hori kontratuaren indarraldia bukatzearekin batera amaituko da.

3. OINARRIA. ESKATZAILEEN BETEKIZUNAK

3.1 Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileak baldintza guztiak bete behar ditu **eskaera aurkezten duenean**; hona hemen bete beharreko baldintzen zerrenda:

3.1.a. **Doktore titulua izatea edo 6 hilabete naturaleko epean lortzeko moduan izatea.**

Doktore titulua izan ezean, agiri bat aurkeztu behar da tesia inskribaturik duen doktorego programaren koordinatzaileak eta tesiko zuzendariak sinaturik, adieraziz eskatzailea titulua 6 hilabeteko epean (eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunetik kontatzen hasita) lortzeko moduan dagoela.

Atzerriko ikastegietan lortutako doktorego titulu bat aurkeztuz gero, tituluaren eta Espainiako doktore mailaren arteko baliokidetasun deklarazioa eduki beharko da.

Lan kontratua formalizatzeko unean egiaztatu beharko du doktore titulua baduela edo, atzerriko ikastegi batean lortutako titulu baldin bada, Espainiako baliokidetasun deklarazioa izatearen baldintza betetzen duela.

3.1.b. **Gehienez ere hiru urte igaro izana doktore titulua lortu zuenetik.** Eskatzaileak doktore titulu bat baino gehiago badu, epe hori lehenengoari aplikatuko zaio.

Doktore titulua lortzeko datatzat hartuko da doktorego tesia defendatu zeneko data, edo, jasota ez badago, tituluaren jaulkipen-data.

Aipatu epea kontatzerakoan ez dira kontuan hartuko Gizarte Segurantzako Araubide Orokorrari jarraiki hartutako amatasun edo aitatasunagatiko atsedenaldiak, ez eta eskatzaileak izandako gaixotasun larriagatik edo istripuagatik medikuak emandako bajaren aldia ere, betiere 3 hilabete edo gehiago baldin bada.

3.1.c. Proposamena egiten duen zuzendari zientifikoari dagokion **ikertaldearen abala izatea**, eta ikerketa jardura garatuko duen EHUko dagokion sailaren, institutuaren edo ikergunearen baimena izatea.

3.1.d. **Atzerriko gune baten eta erakunde horretako zuzendari baten abala izatea**, egonaldiaren onarpena ziurtatzeko eta eskatzaileak proposatutako ikerketa programa baliozkotzeko.

3.1.e. **Bi ekarpenen egile** edo **egilekide** dela egiaztatzea, Ikerketa Jardura Ebaluatzeke Espainiako Batzordeak (aurrerantzean, **CNEAI**) kasuan kasuko jakintza arlorako ezarritako irizpideen arabera. Argitalpenen kasuan, aski izango da aldizkariak adierazitako onespina aurkeztea. Doktorego tesia bera edo argitalpen zerbitzuren batek tesiaz egindako argitalpena ez da aintzat hartuko helburu honetarako.

3.1.f. **EHUren doktoratu ondoko laguntzarik** edo **Eusko Jaurlaritzaren** ikertzaile doktoreen hobekuntzarako **doktoratu ondoko programako laguntzarik ez izatea edo lehendik jaso ez izana**.

3.2 Hautagai bakoitzak **eskaera bakarra** aurkeztu ahal izango du deialdi honetara.

3.3 Lan kontratua formalizatzeko unean, eskatzaileak egiaztatu beharko du ez duela EHUk edo beste erakunderen batek kontratatu, ZTBLren 22. artikulua arautzen duen kontratu modalitatearekin, 3 urtetatik gorako epean.

4. OINARRIA. ESKAERARI ABALA EMATEN DION ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BALDINTZAK

4.1 Deialdi honetan parte hartzeko, eskatzaileak ondoren zerrendatzen diren baldintza hauek guztiak bete behar ditu **eskaera aurkezteko unean**:

4.1.a. **EHUrekin kontratu bidezko lotura izan behar du**, eskaera aurkezteko unean hasi eta laguntzaren iraunaldi osoan.

4.1.b. Gutxien dela, **hiru seiurteko edo seiurteko bizi bat izatea (azken 6 urteetan lortutakoa), CNEAik emana edo ebaluazio positibo baliokidea**, antzeko ebaluazio agentzia egiaztatu batek emana irakasle ez-iraunkorrentzat, eskaera aurkezteko unean.

Salbuespen gisa, eta aurreko puntuan aipatutako baldintza deialdi honetarako betetzen dela egiaztatze aldera soilik, ikerketa jarduera ad-hoc ebaluatze prozesu bat abiaraziko du IAEak, Unibasq edo antzeko ezaugarriak dituen agentzia ebaluatzaile baten bitartez, betiere **kontratuaren egoeragatik CNEAlren seiurtekoak emateko urteko deialdian sartu ezin diren zuzendariek parte hartu ahal izan dezaten.**

Proposatutako zuzendaria baldintzapean onartuko du IGZk, eta behin betiko onartu ahal izateko, aurreko paragrafoan deskribatutako ebaluazio prozesua gainditu behar izango da. Ofizios eskatuko da "4.1.b oinarriko bigarren zuzendaria" dokumentua betetzeko eta, kasu horietan, eskaerak aurkezteko unean 4.1.b oinarrian deskribatutako baldintza betetzen duen bigarren zuzendari bat izendatuko da dokumentu horretan; horrela, bada, zuzendari horrek hartuko du kontratuaren zuzendaritza, proposatutako lehen zuzendaria ebaluazio positiboa lortzen ez badu. Horrela, gutxienez zuzendari batek hiru seiurteko edo seiurteko bizi bat, gutxienez, izatea bermatu nahi da.

4.1.c. Eskaera aurkezten den unetik bertatik eskaerari abala ematen dion **ikertaldeko kide izan behar du** (1. oinarrian zehaztutako baldintzetan).

4.2 Zuzendari bakoitza deialdi honetako **eskaera bakar batean** agertu ahal izango da.

5. OINARRIA. ESKAERARI ABALA EMATEN DION IKERTALDEAREN BALDINTZAK

5.1 Deialdi hauetako batean eskaera aurkeztu izana:

- a. Euskal Unibertsitate Sistemako Ikerketa Taldeen jarduerak bultzatzeko dirulaguntzen 2026-2029 deialdian.
- b. EHUko Ikertaldeetarako Laguntzen deialdian (2026-2029).

Talde abal emailea onartzeko, 5.1 apartatuan aipatutako deialdietakoren batean aitortza eta finantzaketa lortuta izan beharko dira laguntza hauek emateko behin-behineko erabakia argitaratzen den unean.

6. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN ESKUBIDEAK

6.1 Eskubidea dute txertatzen diren sail, institutu edo ikerguneen laguntza eta sostengua jasotzeko, tokian tokiko baliabideen neurrian, beren ikerketa programak egiteko.

6.2 Zeregin osagarriak egin ahal izango dituzte proposatutako ikerketa jarduerarekin erlazionatutako irakaskuntza lanetan, EHUⁿ ez beste inon eta kontratuaren bigarren fasean zehar (gehienez bi urte) eta, gehien dela, 100 eskola ordu urteko, dagokion sailarekin hitzarmena egin ondoren eta EHUren zerbitzura dauden langileentzako bateraezintasunei buruzko indarreko arautegiari lotuta, eta ezin izango dute irakasgai ardurarik izan, ez eta ikasleen ebaluazio edo probarik egin ere.

6.3 Kontratutako pertsonak unibertsitatearen Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) erabili eta baliatzeko eskubidea izango du, bai eta bere baitan hartzen dituen unibertsitateko ikertaldearen azpiegiturak eta materiala ere.

Era berean, eskubidea izango du sailaren ikerketa baliabideak eta, hala badagokio, unibertsitateko ikertaldeak bere ikerlana egiten duen ikergunearen erabiltzeko, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez betiere.

6.4 Doktoratu ondoko kontratu horien onuradunek eskubidea izango dute derrigorrezko egonaldia egiten duten atzerriko ikergunean 12 hilabeteko egonaldi jarraituan egiten dituzten gastuetarako (joan-etorriak, ostatua eta mantenua) laguntza jasotzeko, 15. oinarrian zehazten diren baldintzetan.

7. OINARRIA. KONTRATATUTAKO LANGILEEN BETEBEHARRAK

7.1 EHUko dagokion sailean, institutuan edo ikergunean jardunean hastea, deialdi honetako 13.4 oinarrian ezarritako epean, ikerketa lana egiten hasteko.

7.2 Dagokion sail, institutu edo ikergunearen funtzionamendurako arauak betetzea, bai arduraldiari dagokionez, bai eginkizunei dagokienez, bai eta ordutegi eta oporrei dagokienez ere.

7.3 Atzerriko gunean hastea 2.7 oinarrian ezarritako epean, eta bertan egingo du bere ikerketa jarduera, gutxienez 12 hilabetez, etenik gabe.

EHUko zuzendari zientifikoak eta atzerriko zuzendariak sinatutako idazki baten bidez egiaztatu beharko da gunean hasi izana, sarrera data adierazita. Halaber, helmugako herrialdean bizi dela justifikatzen duen alokairu kontratua aurkeztu beharko da, lanean hasi eta hilabeteko epean.

7.4 Atzerriko gunean egon ondoren, EHUko dagokion sailera, institutura edo ikergunera itzultzea, kontratuaren iraupeneko 36 hilabeteak bete arte geratzen den denborarako.

Eskaerari abala eman dion zuzendari zientifikoak eta dagokion saila, institutua edo ikergunea zuzentzen duen pertsonak sinatutako idazki baten bidez egiaztatu beharko da lanera itzuli dela, EHUra itzuli den eguna adierazita.

7.5 IGZk edo deialdiaren kudeaketan parte hartzen duten zerbitzuek eskatutako txosten, formulario eta gainerako agiriak betetzea.

7.6 IAEri baimena eskatzea iraupen laburreko aldi baterako irteerak egiteko EHUko dagokion ikergunetik nahiz atzerriko gunetik, ikerketa premiak direla eta (hala nola biltzarretara, konferentzietara, ikastaroetara, mintegietara edo jardunaldietara joatea). Irteeretako egonaldi horiek gehienez 15 egun naturalekoak izango dira. Horretarako, IAEren baimena lortu ondoren, dagokion lizentzia eskatu beharko zaio Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordeari (aurrerantzean, IIAE), EHUko irakasle-ikertzaileentzako lizentzia eta baimenen tresna erabilita (<https://gestion-servicios.ehu.es/pdiProcedure/katalogoa>). Irteera horiek IAEk eta IIAEk baimendu beharko dituzte, egin aurretik.

7.7 Irakasle-ikertzaileen Errektoreordetzan (neg.investigadores@ehu.eus) eta IGZko Giza Baliabideetan (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) jakinaraztea deialdi honen babesean sinatutako kontratuari uko egin izana, gutxienez 10 egun baliodun lehenago. Era berean, laguntza eman zeneko hasierako egoeran aldaketarik edo etenaldirik gertatzen bada, eta deialdiaren helburuak betetzea eragozten duen bestelako gorabeheraren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko dute IGZko Giza Baliabideetan, gehienez 10 egun balioduneko epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita. Laguntza honek iraun bitartean jasotako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.

7.8 Deialdi honen babesean formalizatutako kontratuak iraun bitartean egindako lanak sinatzean EHUrekiko atxikipenaren aipamena egin beharko da.

Era berean, eskerrak emateko atalean, ikertzaile doktoreak kontratatzeiko EHUn deialdi hau aipatu beharko da kontratuak iraun bitartean egindako ikerketa jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan.

7.9 Beren jardueri buruzko informazio guztia eman beharko diete finantzak kontrolatu eta egiaztatzeiko eskumena duten organoei, horiek hala eskatzen dietenean.

7.10 EHUn titulartasuna aitortzea, egindako ikerketa lanaren ondorioz sor litezkeen argitalpen, patente, erabilgarritasun eredu eta jabetza intelektualeko objektuen nahiz lanen inguruan, jabetza industrial edo intelektualaren asmatzaile gisa duen aitopenari betiere eutsiz.

7.11 Deialdi honen babesean kontratua formalizatzeko deialdiko arauak betetzea dakar, bai eta IAEk eta EHUko dagokion sail, institutu edo guneak eta atzerrikoak, bakoitzak bere eskumenen eremuan, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeiko ezarritako arauak betetzea ere.

7.12 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2011 Legearen 22. artikuluan eta Ikertzailearen Europako Gutunean ezarritako betebeharrak orokorrak eta espezifikak betetzea.

8. OINARRIA. ZUZENDARI ZIENTIFIKOAREN BETEBEHARRAK

8.1 Zuzendari zientifikoaren betebeharra izango da ikertzaileei emandako laguntzaren helburua betetzen dela bermatzea, eta laguntza indarrean den bitartean arduradun gisa jardungo da. Era berean, Ikerketaren arloko errektoreordeari eman beharko dio proposatutako ikerketa eragotz dezakeen edozein inguruabarren berri.

8.2 Ikerketako eta prestakuntzako programaren garapen egokia zaindu beharko du, eta ezin izango zaio eskatu ikerketarekin nahiz ikerketa egiteko behar den prestakuntzarekin zerikusirik ez duen jarduerarik egitea.

8.3 Ikertzaileei behar duten laguntza eskaintzea eta beren lana behar bezala egiteko behar dituzten baliabideak, tresnak edo ekipamenduak eskura jartzea. Kontratututako ikertzaileen eskura jartzea lana behar bezala egiteko behar dituzten instalazioak eta baliabide materialak, eta dagokion sail, institutu edo ikergunean antzeko kategoria duten langileen eskubide eta prestazioak dituztela bermatzea.

8.4 Atzerriko guneko zuzendariarekin koordinatzea laguntza jasotzen duen pertsonak atzerrian dagoen bitartean egiten duen ikerketa jardura.

8.5 Egiaztatzea kontratuaren onuraduna atzerriko gunean, zein, egonaldia amaitzean, EHUKo dagokion sailean, institutuan edo ikergunean ari dela.

8.6 Inork kontratuari uko egiten badio, edo kontratua egin zeneko hasierako egoeran aldaketarik edo etenaldirik gertatzen bada, eta bestelako gorabeheraren bat gertatzen bada, horren berri eman beharko du IGZko Giza Baliabideetan, gehienez 10 egun balioduneko epean, aipatutako jazoerak gertatzen diren egunetik kontatzen hasita.

8.7 Kontratua jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak bete beharko dituzte IGZk edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean, ikertzaileak egindako lanaren deskribapen zehatza barne, ordura arte helburuak noraino bete diren zehaztuz.

8.8 Ikertzailearen Europako Gutunean zehaztutako eskakizunak betetzea.

9. OINARRIA. IKERKETA JARDUERETAN BETE BEHARREKO PRINTZPIOAK

9.1 Deialdi honen bidez gauzatzeko proposatu diren jardueretan gizakiak, gizakien lagin biologikoak eta/edo datu pertsonalak erabili nahi badira, baldintza hauek bete behar dira:

- Adierazpenetan jasotako printzipio etikoak betetzea (Belmont, 1979; CIOMS, 2002; Giza Genoma, UNESCO, 1997; Oviedoko Hitzarmena, 1999; eta Tokioko Adierazpena, 2004).
- Indarreko legeria betetzea: 14/2007 Legea, Ikerketa Biomedikoari buruzkoa; 1716/2011 Errege Dekretua, Biobankuei buruzkoa; 41/2002 Legea, Pazientearen Autonomiari buruzkoa; 15/1999 Legea, abenduaren 13koa, Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa; 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa; eta 2016/679 (EB) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena. Bai eta Datu Pertsonalak Babesteari buruzko EHUKo Arautegia ere.
- Gizakiekin, haien datuekin eta haien laginekin lotutako Ikerketetarako Etika Batzordearen (GIEB-EHU) nahitaezko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakia, EHUKo ikerketan eta irakaslanean etika organoak arautzeari buruzkoa (EHAA, 32 zk., 2014-02-17).

9.2 Deialdi honen bidez gauzatzeko proposatu diren jardueretan animaliekin esperimintatu nahi bada, baldintza hauek bete behar dira:

- Nazioartean sustatutako ordezte, murrizte eta fintze irizpideak betetzea.
- Animaliekiko ikerketaren arloko araudia (53/2013 ED) betetzea.
- Animaliekin egiten den Esperimentaziorako Etika Batzordearen (AEEB-EHU) nahitaezko eta aurretiazko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik EHUKo ikerkuntza eta irakaskuntzaren arloan etikako organoak arautzeko arautegia, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarrilaren 30eko erabakian jasotzen dena (EHAA, 32. zk., 2014-02-17).

- Agintari eskudunaren (Foru Aldundietako Abeltzaintza Sailak) baimena lortzea.

93 Deialdi honen bidez gauzatzeko proposatu diren jardueretan agente biologikoak eta/edo genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) erabili nahi badira, baldintza hauek bete behar dira:

- Prebentzioaren, zuhurtasunaren eta informazioaren printzipioak betetzea, giza osasuna eta ingurumena babesteari dagokionez.
- Arlo horretan indarrean den legedia betetzea: 31/1995 Legea, Lan Arriskuen Prebentzioari buruzkoa; 664/1997 ED, Langileak lanean ari diren bitartean agente biologikoekiko esposizioaren arriskuetatik babesteari buruzkoa; 665/1997 ED, Langileak lanean ari diren bitartean agente kantzerigenoekiko esposizioaren arriskuetatik babesteari buruzkoa; 9/2003 Legea eta 178/2004 ED, genetikoki eraldatutako organismoak konfinaturik erabiltzeari, borondatez askatzeari eta merkaturatzeari buruzkoa, eta TES1180/2020 Agindua, zeinaren bidez egokitzen baita, aurrerapen teknikoen arabera 664/1997 EDa.
- Agente Biologikoen eta Genetikoki Eraldatutako Organismoen Ikerketetarako Etika Batzordearen (ABIEB-EHU) nahitaezko eta aurretiazko aldeko txostena lortzea, aintzat harturik EHUren ikerkuntza eta irakaskuntzaren arloan etikako organoak arautzeko arautegia, Gobernu Kontseiluaren 2014ko urtarilaren 30eko erabakian jasotzen dena (EHAA, 32. zk., 2014-02-17).

94 Deialdi honen bidez gauzatzeko proposatu diren jardueretan gizakien enbor zelula amak edo haietatik eratorritako zelula lerroak erabili nahi badira, honako lege hauek hartu beharko dira kontuan: 14/2006 Legea, maiatzaren 26koa, Lagundutako Giza Ugalketako Teknikai buruzkoa; 2132/2004 ED, soberako aurre-enbrioetatik eskuratutako zelula amekin ikerketak egiteko baimena eskatzeko baldintzak eta prozedurak ezartzen dituen; eta 09/2014 ED, uztailaren 4koa, giza zelulak eta ehunak emateko, erauzteko, ebaluatze, prozesatzeko, zaintzeko, biltegitratzeko eta banatzeko kalitate eta segurtasun arauak ezartzen dituen.

Horrez gain, giza jatorriko lagin biologikoak behar bezala lortu eta erabiltzeko, kontuan izan beharko da giza laginekin eginiko ikerketari buruzko 1716/2011 ED, azaroaren 18koa, ikerketa biomedikoa egiteko eta giza jatorriko lagin biologikoak tratatzeko biobankuak baimentzeko eta haien funtzionamendurako oinarritzko baldintzak ezartzen dituen, eta ikerketa biomedikorako Biobankuen Erregistro Nazionalaren funtzionamendua eta antolamendua arautzen dituen. 290. zenbakidun BOE, 2011ko abenduaren 2koa, ostirala.

95 Deialdi honen bidez egiteko proposatu diren jarduerak ez dute lagunduko gerrarik pizten edo bultzatzen; zehazki, ez diete lagunduko, ez zuzenean ez zeharka, armak sortzen eta/edo merkaturatzen dituzten enpresei.

10. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

10.1 Eskaera aurkezteko tokia eta era.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan eta Euskal Herriko Unibertsitatearen bitarteko elektronikoen funtzionatzeko eta jarduteko arautegia argitaratzen duen EHUko idazkari nagusiaren 2024ko irailaren 11ko Erabakian ezarritakoarekin bat etorruta, eskaerak EHUren egoitza elektronikoen bitartez **soilik** aurkeztuko dira (<https://egoitza.ehu.eus>), eta "ESKATZEN DU" eremuan erreferentzia hau adierazi beharko da: **"POSTDOC 2026 – Ikerketaren Gestioa Giza Baliabideak U02000381"**.

Horretarako, egoitza elektronikoa jasotako identifikatzeko eta sinatzeko bitartekoetatik edozein erabili ahal izango da, hala nola BakQ, NAN elektronikoa edo Diruaren eta Zerga Ziguaren Fabrika Nazionalaren (FNMT-CERES) ziurtagiria. Izenperen hodeiko ziurtagiri profesionalarekin sartzeko, "Ziurtagiri digitalak" aukeraren bidez, profesionalen txartel birtuala hodeian instalatuta izan behar da, eta saioa hasi behar da.

Salbuespen gisa, eta hautagai batek **egiaztatzen badu ez dela Espainiako lurraldean bizi**, hautagai horren eskaera aurkeztu ahal izango du **EHUn kontratua duen zuzendari zientifikoak**, haren ordezkari izango den aldetik. Horretarako, hautagaiak honako agiri hauek helarazi beharko dizkio ordezkariari:

1. **Ordezkaritza baimena** sinatuta, deialdiaren webgunean eskuragarri dagoen ereduaren arabera.
2. **Identifikazioa egiaztatzen duen agiri ofiziala**: pasaporte edo NANaren pareko dokumentua.
3. Deialdiaren **6.2 oinarrian** eskatzen diren **agiri guztiak**, PDF formatuan.

EHUren egoitza elektronikora sartu (<https://egoitza.ehu.eus>) eta, eskaerak aurkezteko epearen barruan, aurreko **Ikerketaren arloko Errektoreorde**

paragrafoan deskribatutako agiri guztiak erregistratuko ditu zuzendariak.

Errazago identifikatze aldera, izapide hori burutu ostean mezu elektroniko bat bidali behar da helbide honetara: pre-postdoc.dgi@ehu.eus, gaian "POSTDOC 2026" adierazita, eta eskaera ordezkariaren bitartez egin dela jakinarazi behar da.

Hautagai berak egindako eskaera bat baino gehiago jasoz gero, deialdian ezarritako epearen barruan aurkeztutako azken eskaera hartuko da kontuan, ez besterik.

10.2 Beharrezko dokumentazioa:

- a. **Eskaera-orria**, IAEaren webgunean eskura daitekeen eredu normalizatuaren arabera, behar bezala sinatuta. Eskaera **ingelesez** aurkeztuko da lehentasunez eta EAEko hizkuntza ofizialetako batean ere aurkez daiteke, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz.
Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Dagokion epean eta eran aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.
- b. **Proiektuaren memoria**, IAEaren webgunean eskura daitekeen eredu normalizatuaren arabera. Memoria **ingelesez** aurkeztuko da lehentasunez eta EAEko hizkuntza ofizialetako batean ere aurkez daiteke, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz.
Dokumentu hori eskaeraren osagaitzat eta gutxieneko edukitzat hartuko da, eta, beraz, eskatzaileak ezin izango du hura aldatu aurkeztu ondoren. Dagokion epean eta eran aurkeztu ezean, deialditik at uzteko arrazoia izango da.
- c. **Eskatzailearen Curriculum Vitae laburra (CVL)**, PDF formatuan, (gehienez 4 orri). Eskatzaileak esteka honen bidez sartu ahal izango dira online editorera: <https://cvn.fecyt.es/editor/>. Aplikazio horri buruzko kontsulta teknikoak egiteko: cau.editor.cvn@fecyt.es.
Eskatzailearen CVa **ingelesez** idatzi behar da, eta 11.2.1. apartatuan deskribatutako merezimendu ebaluagarri bakoitzaren **erreferentziak erraz eta argi identifikatzeko moduan** agertu behar dira. Betebehar hori ez bada betetzen, adierazitako merezimenduak ez dira baloratu.
- d. **Doktore titulua**; ikasketak atzerrian eginda izanez gero, dokumentazioari gaztelaniazko edo ingelesezko itzulpena gehitu behar zaio.
Eskaerak aurkezteko unean doktore titulua izan ez baina 6 hilabeteko epean lortzeko moduan (3.1.a) oinarria) daudenek **titulua lortzeko konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena** aurkeztu beharko dute (eredu normalizatuaren arabera).
- e. Ikerketa jardura egingo den **EHUko dagokion sailaren, institutuaren edo ikergunearen onarpen agiria**; zuzendari zientifikoak ere sail, institutu edo ikergune horri atxikita egon beharko du.
- f. **Atzerriko unibertsitatearen edo ikergunearen onarpen agiria**, eskatzailea gutxienez 12 hilabeteko egonaldia egiteko onartzen duela egiaztatzen duena, betiere deialdi honen xede den laguntza lortuz gero, eta proposatutako ikerketa programa baliozkotzen duena. Dokumentu hori (formatu librean egin daiteke) atzerriko gunearen legezko ordezkariak eta gune horretan harreraren ardura izango duen zuzendari zientifikoak sinatu beharko dute.
- g. **Aurretiaz jasotako doktoratu ondoko laguntzen erantzukizunpeko adierazpena**, dauden eredu normalizatuen arabera.
- h. **Euskararen jakite maila egiaztatzen duen ziurtagiria**, merezimendu hori egiaztatu nahi izanez gero. Ez da onartuko ziurtagiririk, eskariak aurkezteko epea amaitu eta gero lortu badira. Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko den apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuaren ondoriozko baliozkotzeen kasuan, eskatzaileek norberari dagokion ziurtagiria aurkeztu beharko dute.
- i. Desgaitasuna duten pertsonentzat gordetako kupoaren bidez sartzen diren pertsonentzat, **% 33ko edo gehiagoko desgaitasun maila egiaztatzen duen ziurtagiria, bai eta zuzendari zientifikoaren txostena ere**, 1. oinarrian ezarritako egin beharreko lanarekin bateragarria dela ziurtatzen duena.
- j. **EHUtik kanpoko sinaduren egiazkotasuna** 10.1 oinarrian ezarritakoari jarraiki bermatzen duen

erantzukizunpeko adierazpena (eskura dagoen ereduaren arabera).

- k. Bizilekua Espainiako lurraldean ez dutela egiaztatzen duten hautagaien kasuan, 10.1 oinarrian deskribatutako **ordezkaritzarako** eskatzen den dokumentazioa.

103 **Aurkezteko epea.** Eskaerak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 3tik 25era bitarte (bi egunak barne)** izango da.

11. OINARRIA. ESKAEREN EBALUAZIOA

11.1 Eskaeren ebaluazioa, Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren (UNIBASQ) bidez egingo da, edo antzeko ezaugarriak dituen beste agentzia baten bidez, eskaeraren ardura duen ikertzaile nagusiak hautatutako ebaluazio arloan. Ahal bada, eskaera aurkeztu den hizkuntza koofizialean egingo da ebaluazioa. Ebaluazioak ezin badira euskaraz/gaztelaniaz egin hizkuntza horiek dakizkien ebaluatzaile espezialistarik ez dagoelako, ingelesez helarazitako eskaera eta memoria erabiliko dira.

11.2 Dirulaguntzak adjudikatzeko, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1. Eskatzailearen Curriculum Vitae laburra (CVL) (0-40 puntu).
 - a. Ekoizpen zientifiko-teknologikoa (0-20 puntu).
 - b. I+G proiektu eta kontratuetan izandako parte hartzea (0-10 puntu).
 - c. Mugikortasuna (0-5 puntu).
 - d. Bestelako merezimenduak (0-5 puntu). Atal honetan baloratuko dira hizkuntzak jakitea, tesiaren nazioarteko aipamena edo ezohiko saria eta graduondoko doktoregoz besteko prestakuntza edo ikerketa jardunei loturiko lan esperientzia.

CV laburrean, merezimendu ebaluagarri bakoitzaren **erreferentziak erraz eta argi identifikatzeko moduan** agertu behar dira. Betebehar hori ez bada betetzen, adierazitako merezimenduak ez dira baloratuko

2. Ikerketa programaren interes zientifikoa eta kalitatea (0-20 puntu).
 - a. Ikertu beharreko gaiaren aurrekarien eta egungo egoeraren analisiaren kalitatea eta bibliografia (8 puntu).
 - b. Ikerketaren helburu orokorren garrantzia (8 puntu).
 - c. Metodologiaren eta egin beharreko ikerketa jardunaren egokitasuna (4 puntu).
3. Ikerketaren onurak, gizarte inpaktua, zabalkundea eta emaitzen transmisioa (0-10 puntu).
4. Atzerriko helburuko gunea (0-20 puntu).
 - a. Gunearen prestigioa proposatutako programari dagokion arloan (0-10 puntu).
 - b. Guneak eta zuzendariak bertan eskaintzen dituzten aukerak eta onurak, proposatutako ikerketa proiektuaren bideragarritasuna eta gauzatzea lortzeko (0-10 puntu).

5. Euskara jakitea (0-5 puntu).

Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideak: 5 puntu.
- B2 mailaren egiaztagiria eta baliokideak: 3 puntu.

Ez da baloratuko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (297/2010 Dekretua, euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzetarako Erreferentziazko Europako Esparru Komuneke mailekin parekatzeko dena), apirilaren 18ko 65/2023 Dekretuan eta bat datozen gainerako arauetan xedatutako aldaketak ere aintzat hartuta.

6. Ikertzaile hasiberrientzako pizgarria eta genero ikuspegia (0 5 puntu).

Puntuazio hori lortzeko aukera baliatu ahal izateko, zuzendari zientifiko berritza hartuko da honako hiru baldintza hauek betetzen dituen:

- Gehienez 45 urte izatea eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean.
- Gutxien dela, defendatu den doktorego tesi bat zuzendu izana.
- EHUn, Eusko Jaurlaritzaren, Ikerbasqueren, EAEko hiru aldundien, Estatuko Ikerketa Agentziaren edo Europar Batasunaren deialdien babesean kontratatutako doktoratu ondoko ikertzaileen zuzendari zientifikoa izan ez izana aurretiaz.

Hasiberriaren definizioaren baldintza betetzen duten zuzendari zientifikoek 3 puntu lortuko dituzte. Zuzendariak, hasiberriaren baldintza beteta, 2 puntu gehiago lortuko dituzte emakumeak badira.

11.3 Aurreko paragrafoko 1., 2., 3. eta 4. irizpideak kanpoko ebaluazio prozesu baten bidez ebaluatuko dira. IGZk egiaztatuko ditu 5. eta 6. irizpideak.

12. OINARRIA. ESKAERAK IZAPIDETZEA

12.1 Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda.

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, aurkeztutako eskaerak aztertuko ditu IGZk. Azterketa hori amaitu eta gero, IAEk bere webgunean emango du argitara ebaluazio fasera igarotzeko onartu diren eta bazterrean utzi diren eskaeren zerrenda.

12.2 Okerrak zuzentzea.

Eskaerak aurkezteko epean aurkeztutako dokumentazioa ez badago osatua edo zuzen daitezkeen erroreak baldin baditu, 10 egun balioduneko epean osatu eta zuzen dezan eskatuko dio IAEk eskatzaileari. Okerren zuzenketak 10. oinarrian deskribatutako bitartekoak erabilita aurkeztu beharko dira.

Eskatzaileak ezin izango du ez hobetu ez ordezkatu lehenago aurkeztutako dokumentazioa, eta eskaerak ezin izango dira inola ere berriro egin. IAEk eskatu ez duen dokumentaziorik ere ezin izango da aurkeztu.

12.3 Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda argitaratuko da. Atzera egindakotzat joko dira zuzenketak behar den epean eta eran egin ez dituztenen eskaerak, betiere Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, APL) 68. artikulua dioena aintzat hartuta.

12.4 Ebaluazio fasea.

11. oinarrian deskribaturiko ebaluazio irizpideen balorazioa 2 hilabetetik beherakoa ez den epean egingo da. Egindako ebaluazio txostenak IGBBk helaraziko dira; Batzorde horrek dagokion adjudikazio proposamena aurkeztuko dio Ikerketaren arloko errektoreordeari eta errektoreordeak behin-behineko erabakia hartuko, gero argitaratzeko.

Hainbat eskatzailearen arteko berdinketa gertatuz gero azken puntuazioan, honako irizpide hauen arabera ordenatuko dira eskaerak, hurrenez hurren, berdinketa hautsi arte:

- a. Kontratu espezifikoaren eskaeretak, aurretik inolako laguntzarik izan ez duen taldeari dagokion eskaera lehenetsiko da laguntza izan duen taldearenaren gainetik.
- b. 11. oinarriko 1. irizpidean puntuaziorik handiena lortu duen eskaerak izango du lehentasuna.
- c. 11. oinarriko 2. irizpidean puntuazio handiagoa lortu duen eskaerak izango du lehentasuna.
- d. Deialdi honetan arrakasta tasarik txikiena duen zientziaren arloari dagokion eskaerak izango du lehentasuna (arrakastaren %-a/eskaerak arlo bakoitzeko).
- e. Emakume baten eskaera lehenetsiko da gizon baten eskaeraren gainetik.

12.5 Behin-behineko erabakia.

IGBBk behin-behineko erabaki proposamena egingo du, eta IAEren webgunean argitaratuko da, eskatzaile guztiek lortutako behin-behineko puntuazioa zehaztuta.

Eskatzaileek eskaeraren ebaluazio txostena eskatu ahal izango dute helbide elektroniko honetara mezu bat bidalita: pre-postdoc.dgi@ehu.eus; mezuaren gaia: "POSTDOC 2026".

Interesdunek gehienez 10 egun balioduneko epea izango dute egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Aipatutako epean alegazio espresik jaso ezean, proposamenak onartutzat joko dira eta alegatzeko eskubidea bertan behera geratuko da.

12.6 Behin betiko erabakia.

Epea igarota, aurkeztutako alegazioak IGBBra helaraziko ditu IAEk, bertan azter ditzaten eta, horren ondorioz, esleipenaren behin betiko erabakiaren proposamena aurkez diezaizoten Ikerketaren arloko errektoreordeari.

Kontratua emateko edo ukatzeko behin betiko erabakia IAEren webgunean argitaratuko da, eta argitalpen horrek berak jakinarazpen balioa izango du interesdunentzat.

12.7 Behin betiko erabakiaren aurkako errekurtsioak.

Behin betiko erabakiak administrazio bidea agortzen du, eta honako bide hauek erabil daitezke, inoiz ez aldi berean, kontra egiteko:

1.- Aurretiaz, aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia eman duen organoan berean, hilabete 1eko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsio hori aurkeztuz gero, eta errekurtsioa aurkeztu eta hilabete 1eko epean erabaki espresurik eman ezean, administrazioaren isiltasunagatik errekurtsioa ezetsitzat jo dela ulertuko da; horrela gertatuz gero, hurrengo paragrafoan aipatzen auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jartzeko epea 6 hilabetekoa izango da, errekurtsioa ustez ezetsitzat jo den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, APL; eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietarako Epaitegietan. Horretarako, 2 hilabeteko epea dago erabaki hau argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.3 eta 46. artikulua).

13. OINARRIA. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

13.1 Behin betiko erabakia argitaratu eta segidako 10 egun baliodunen buruan, kontrataziorako hautatutakoek, kontratua lortzeko alegatu dituzten baldintza eta merezimenduen egiazkotasuna egiaztatzeaz gain, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute IAEⁿ:

- a. NAN, AIZ edo pasaportearen fotokopia, PDF formatuan.
- b. Deialdi honen adjudikaziodun gisa dituzten betebeharrak onartzeko dokumentua.
- c. Identifikazio fitxa, datu pertsonalak, bankukoak, eta Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia adierazita.
- d. Zinpeko adierazpena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko Legearen 22. artikuluan adierazten den kontratua egiteko bateraezintasunik ez dagoela ziurtatzen duena.
- e. Doktore tituluaren fotokopia konpultsatua edo tituluari dagokin baliokidetasun aitortpena.
- f. EHUko dagokion ikergunean lanean hasi izana adierazteko dokumentua.
- g. Eskaeren fasean aldeztu aurretik aurkeztu ez den dokumentazio originala, sinatuta.

Eskatutako agiriak dagokien epean eta eran aurkeztu ezean, kontratua egiteari uko egiten zaiola ulertuko da.

13.2 Europar Batasuneko herritarrak ez diren pertsonen kasuan, Espainian lan egiteko administrazio baimena izan beharko dute aurretiaz, Ekintzaileei eta haien nazioartekotzeari laguntzeko irailaren 27ko 14/2013 Legean xedatutakoaren arabera.

13.3 Kontratuak formalizatzeko eta lanean hasteko datak ez dira izango, inola ere, 2027/02/01a baino

lehenagokoak. Zehaztutako egunean, adjudikaziodunak ez badu kontratua sinatzen edo ez bada dagokion sail, institutu edo ikergunean lanean hasten, kontratuari uko egiten diola ulertuko da.

13.4 Eskaerak ebaluatzean kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira, alta emateko izapidea eten egingo da eta, hala badagokio, kontratua deuseztatu egingo da.

13.5 Atzerriko ikergunean lanean hasteko eguna ezinbesteko arrazoiengatik atzeratu ahal izango da (bisa lortzeko ezintasuna, aldi baterako ezintasun egoeran egotea, haurdunaldiko arriskua, amatasuna, adopzioa edo harrera, edoskitzaroko arriskua, aitatasuna edo antzeko inguruabarrak), betiere IAEk aurretiaz baimena emanda, deialdi honen 3.7 oinarrian xedatutako hilabetez haratago. Kasu horretan, onuraduna kontratua sinatu ondoren hasiko litzateke lanean dagokion ikergunean, atzerriko ikergunean hasi arte. Helburuko gunean lanean hasteko data gehienez ere 6 hilabetez atzeratu ahal izango da.

13.6 Justifikatutako ezohiko inguruabarrik gertatuz gero, kontratua sinatzeko data gehienez ere 3 hilabetez atzeratzeko baimena eman ahal izango da.

14. OINARRIA. BATERAEZINTASUNEN ARAUBIDEA

Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua bateraezina izango da beste edozein kontraturen indarraldiarekin, Bataerazintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legearen 19. artikuluko jarduerak eta Unibertsitate Sistemari buruzko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (2023ko martxoaren 23ko BOE) 60. artikuluan jasotako beste erakunde edo pertsona fisiko batzuekiko lankidetzat kontratuak izan ezik.

15. OINARRIA. MUGIKORTASUNAK ERAGINDAKO GASTUAK

15.1 Doktoratu ondoko kontratu hauen onuradunek eskubidea izango dute kontratuaren osagarri den laguntza bat jasotzeko, atzerriko helburuko guneko egonaldian mugikortasunaren betekizunak eragindako gastuak finantzatzeko.

15.2 Laguntza osagarria 12 hilabetetako egonaldi jarraitua egiteko emango da. Egonaldia 2.7 oinarrian ezarritako epean hasi beharko da.

15.3 Atzerriko egonaldia nahitaez egin beharko da eskaeran adierazitako eta doktoratu ondoko kontratuan zehaztutako helburuko gunean.

15.4 Laguntza osagarri horren bitartez honako kontzeptu hauek finantzatuko dira:

- a. Bidaia gastuak: atzerriko helburuko gunerako joan-etorriko bidaia bakarra finantzatuko da laguntza horren bidez, eta gehieneko zenbatekoa honako kopuru hauen arabera finkatuko da:
 - 1.000 km arte: 300 euro
 - 1.001-2.500 km: 600 euro
 - 2.501-11.000 km: 1.000 euro
 - 11.001 km baino gehiago: 1.200 euro

Distantzia kalkulatzeko, onuradunari dagokion ikergunea kokatzen den Campusa hartuko da abiapuntutzat, erreferentzia izanik <http://es.distance.to> estekaren bitartez egindako kontsulta.

- b. Bisa: laguntza horrek gehienez 200 euroko gehigarri bat finantzatuko du bisa bat izapidetu beharra dakarten atzerriko egonaldiatarako.
- c. Ostatua eta mantenua: gehienez 27,35 euro ordainduko dira atzerrian egindako egun bakoitzeko.
- d. Asegurua: Kontratuari dagokion Gizarte Segurantzaren estalduraz gain, laguntzen onuradunek erantzukizun zibileko aseguru bat ere izango dute. Onuradunek osasun laguntzako eta bidaiako laguntzarako IBILI BEREZI poliza kontratatu beharko dute EHUKO Ondarea zerbitzuaren bitartez (ondarea.aseguruak@ehu.eus); poliza horren kostua IAEk ordainduko du.

15.5 Mugikortasunerako laguntza osagarri hau jasotzea bateraezina da helburu eta aldi bererako beste edozein laguntzarekin.

15.6 Gastuak ordaintzea eta justifikatzea. Onuradunek hainbat agiri aurkeztu beharko dituzte IGZn, helbide elektroniko honetara bidalita: rrhh-inves.dgi@ehu.eus (gaia: "POSTDOC 2026"); hona hemen agiriak:

➤ Egonaldia hasi aurretik:

- a) Garraio publikoko bidaia txartelak eta fakturak.
- b) Bisa gastuen egiaztagiria, halakorik balego.

Ikerketaren arloko Errektoreordetzak bere kabuz aurreratuko ditu goian aipatutako a eta b kontzeptuen zenbatekoak, bai eta ostatua eta mantenua 4 hilabetez ordaintzeko dagokion zenbatekoa ere.

Dena den, norberaren ibilgailua erabiltzea baimendu ahal izango da, kasuan kasuko inguruabarrak aintzat hartuta. Baimen hori egonaldia hasi baino lehen eskatu beharko da. Kilometrajea justifikatu egin beharko da, eta 0,29 euro ordainduko dira kilometro bakoitzeko. Ibilbidean autobiderik baldin badago, errepide mota hori hartu beharko da bidea egiteko. Beraz, autobideko ordainsarien gastuak konpentsatu egingo dira, 15.4.a. artikuluan zehaztutako mugekin.

➤ Egonaldia hasten den unean:

- Helburuko gunean lanean hasi izanaren ziurtagiria

➤ Egonaldia amaitu ondoren:

- Egonaldiaren ziurtagiria, atzerriko zuzendariak edo atzerriko guneko arduradunak sinatuta, eta egonaldiaren hasierako eta amaierako datak berariaz adierazita.
- EHU lanean hasi izanaren ziurtagiria edo derrigorrezko egonaldia luzatu izanaren egiaztagiria.
- Helmugako herrialdean bizi izana justifikatzen duen alokairu kontratuaren kopia, hasierako eta amaierako datak adierazita.

Derrigorrezko egonaldia amaituta, emandako laguntzaren gainerako zenbatekoa ordainduko du Ikerketaren arloko Errektoreordetzak.

16. OINARRIA. DIRULAGUNTZAREN BALDINTZAK ALDATZEA.

Kontratua emateko kontuan hartutako baldintzetakoren bat eta, bereziki, ebaluatu ziren alderdiekin lotutako baldintzaren bat aldatuz gero, horren berri eman eta baimena jaso beharko da, hala badagokio. Eskatutako aldaketak ez badira onartzen, diru kopurua aldatu egin daiteke, edo laguntza jasotzeko eskubidea galdu, edo, kasuan kasu, laguntza itzuli behar izatea ekar dezake.

17. OINARRIA. UKO EGITEAK, BAJAK ETA KONTRATUAREN AMAIERA

Uko eginez gero, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzan (neg.investigadores@ehu.eus) eta IGZko Giza Baliabideetan (rrhh-inves.dgi@ehu.eus) jakinarazi behar da, gutxienez **10 egun baliodun lehenago**.

Kontratututako ikertzaileen baja medikoen eta gainerako gorabeheren berri zuzendari zientifikoak edo kontratatutako ikertzaileak berak eman behar du, **gertaera eragilea gertatu eta segidako 10 egun baliodunen buruan**, IGZko Giza Baliabideetan (rrhh-inves.dgi@ehu.eus); kasuan kasu, aurkeztu beharreko egiaztagiria atxiki beharko zaizkio jakinarazpenari.

Kontratu harremana amaitzeari dagokionean, Langileen Estatutuetako 49. artikuluan jasotako zioak dira aplikatzekoak.

18. OINARRIA. JARRAIPENA

Deialdi honen arabera kontratatutako langileek egindako lanaren jarraipen zientifiko-teknikoa IGZri dagokio, eta horretarako prozedura egokiak ezarriko ditu. Halaber, beharrezkotzat jotzen dituen organo, batzorde edo adituak izendatu ahal izango ditu, bai kontratuaren aplikazioaren jarraipena eta egiaztapena egiteko, bai egokitzat jotzen duen informazio osagarria aurkeztu behar izatea eskatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Deialdi honek administrazio bidea agortzen du, eta beronen kontra administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko Administrazio Auzietarako Epaitegietan, deialdia argitaratu eta bi hilabete epean. Aurrekoa gorabehera, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsua ere aurkeztu ahal izango zaio Ikerketaren arloko errektoreordeari, deialdia argitaratu eta hilabete 1eko epean, 39/2015 Legearen 123. artikuluari jarraikiz.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Deialdi hau Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzen den egunean sartuko da indarrean.

Leioa, 2026ko ekainaren 2a.

Jon Umerez Urrezola
Ikerketa Errektoreordea